

GIPUZKOA

Etxezarreta paper-fabrikaren garrantzi arkitektonikoa agerian

Docomomo erakundeak nabarmendu egin du duen «balio arkitektoniko eta estetikoarengatik»

YARZA LEGORRETA

4 octubre 2016
08:51

Arkitekturaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Etxezarreta Paper fabrikaren bulego eraikinaren balio arkitektonikoa azpimarratu zuen Docomomo erakundeak, arkitektura modernoa inbentariatu, dibulgatu eta babesteaz arduratzen denak. Judith Ubarrechena Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko presidenteak eta Zelai Amenabarro Legorretako alkateak plaka bat jarri zuten bulego eraikinean, honek duen «balio arkitektoniko eta estetikoak», nabarmendu eta ezagutzera emateko.

Jarraian, Irati Otamendi arkitektoak eraikinaren aurkezpena egin zuen, historia eta ezaugarri nagusiak aurkeztuz. Otamendik Etxezarreta paper fabrikaren inguruan egin zuen arkitektura ikasketen amaierako proiektua eta, azaldu zuenez, Fernando Redon bera ere gonbidatu zuten aurkezpenean parte har-tzera, nahiz eta osasun arazoengatik ezin izan zuen bertan egon.

PUBLICIDAD



Fernando Redon arkitektoa eta eraikina.

inRead invented by Teads

DONOSTIA



24%

Bono 3 meses curso de costura a medida

Kilukamiluka

165€

125€

Llévatelo

1957an diseinatu zuen Etxezarreta paper fabrikako bulegoen eraikina, urtebete beranduago eraiki zena. Paper fabrikako nagusiak, Ochoa de Zabalegi familiakoak, lagunak zituen eta. Fabrika 1902an jarri zuen martxan Juan José Echezarretak eta honen alaba bat Ochoa de Zabalegiko seme batekin ezkondu zen, geroago nagusia izango zena. XX. mende hasieratik eraikinak izan zuen garapena ikus daiteke oraindik. Udaletxeko aurkezpenean azaldu zuenez «industria-gizonek asko bidaiatzen zuten eta ikusten zuten estilo internacional horri jarraitu nahi izan zuten Etxezarretan».

Hiru solairutako eraikina aurkeztu zuen, argazki eta bideoen bidez barruko egoera ere ezagutu ahal izan zen, «nahiz eta egun

okerrago dagoen». Kanpoaldean betegarri eta hutsuneekin osatu zuen jokoa azpimarratu zuen, baita lerro bertikal eta horizontalekin jokatzuz, argi erakutsiz «zer den egituraren zatia eta zer ez». Fabrikak ibaiaren ondoan zuen lerroa jarraituz eraiki zen, hasierako aurreproiektuan horrela agertzen ez bazen ere.

Aldaketa hauek tokian-tokira moldatzeko egin ziren, Redonek askotan erabili zuena nazioarteko arkitekturako joerak leku bakoitzaren ezaugarriekin bat egiteko. Bulego eraikinetik arotzeria nabarmendu zuen, bi motako lehiateekin. Jatorrizko batzuk oraindik geratzen dira, egurrezkoak, ondare aldetik balio gehien dutenak. Kanpoaldeko diseinua barrualdean ere islatu zuen Redonek lerro bertikal eta horizontalekin.

Otamendik azaldu zuenez, 1960ko hamarkadan hasi zen eraikinaren gainbehera, funtzionaltasunean oinarritutako erabakiak hartuz, adibidez «fabrika txapaz estali zuten eta testuinguru konposizionala galdu zuen, paper-fabrika ezkutuan geratu baitzen». Gainera, gaur egun «barruan kalte estruktural handia» dagoela onartu zuen, lan handia eska-tzen duena berau berreskuratzeko.


Docomomo elkarteak egindako aitorpena bidea jarraitzeko «aitzakia» izan dadila eskatu zuen, «papelera zenagatik da bulego eraikina eta plaka hau izan dadila hurrengo belaunaldiari Etxezarreta paper-fabrika zer izan zen transmititzeko modua». Izan ere, gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundia da Oria ibaiaren ondoan dagoen fabrika zatiaren jabea eta Zelai Amenabarro alkateak esan zuenez udalak moratoria eskatu zuen eraikina eraitsi ez zezan eta Goiekirekin batera proiektu bat aurkeztu zuten eraikina berriro erabilgarria izateko. Errepidearen beste aldean dagoen fabrika zatiak jabe pribatuak ditu.



¿Soltero y mayor de 40?

Juntamos PAREJAS afines a ti, gracias a nuestro test de afinidad.

www.eDarling.es



Vuelven las 48 horas Peugeot

Ventajas cliente en vehículos nuevos, de ocasión y posventa

www.ofertas.peugeot.es



¿Pagas más de 5€ de móvil?

30MIN y 500MB por solo 5€/mes. Habla, navega y paga lo justo. Es la caña

www.simyo.es



Peugeot 508

¿Quieres ser la envidia de la carretera? Consíguelo con Peugeot Easy Renting

<http://www.peugeot.es>



Verti Seguros

Si tu coche duerme en garaje, tu seguro te cuesta menos.

www.verti.es



Enate Reserva Privada 2012

i6 botellas 48€! Sacacorchos y transporte gratis con el primer pedido

www.vinoseleccion.com/Enate-Reserva

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuette, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.